

PARTE HARTZEA	
Derrigorrezkoa dutenak	Praktikaldia egiten ari diren behin-behineko funtzionarioak (K) Behin-betiko destinoa lortu ez duten funtzionarioak (J) Behin-betiko destinoan suprimituak izan direnak (E) ...
Borondatezkoak	2 urtez behin-betiko destinoan egon diren funtzionarioak (A), eszedentzian daudenak...
Noiz?	Normalean azaro-abenduan izaten da parte hartzeko epea.
MEREZIMENDUAK	
Irizpideak	<u>I. eranskinean</u> azaltzen dira irizpideak. * <u>Gaitasun digitalak</u> puntuatzen dira. *Puntuazio irizpideak aldatzen dira estataletatik autonomikoetara.
UKO EGITEA	
Baldintzak	2 urte igaro behar dituzu erreferentziazko tokian. Derrigorrez parte hartzen baduzu ezin diozu uko egin. Borondatez plaza hartuz gero uko egiteko aukera dago (ADI! Honek epe laburra du!)
ATXIKIPENAK ETA ESPEZIALITATE BERRIETARA ZABALTZEA	
Atxikipenak	Lekualdatze-lehiaketa baino lehen ikastetxe bakoitzean espezialitate aldaketa egiteko aukera eskaintzen da. Kidego bereko titulazioa eduki behar da. <u>Ebazpena hemen</u>
Espezialitateen zabalpena	Maisu-maistretan beste espezialitate batera pasa daiteke titulazio horrekin habilitazioa izanez gero. EIZU bidez. Irakasleen kidegoan EPEko azterketa teorikoa (gaitegiko gai bat) gainditu behar da, ondoren Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko. Karrerako funtzionarioek espezialitatearen arabera hainbat zerrendetan hartu dezakete parte: <u>zerrendak</u> .

LEKUALDATZE LEHIAKETAK

ZALANTZAK	
Maiztasuna	2 urtetik behin estatala izan ohi da (2025eko LALen EAEkoa soilik). EAEkoa urtero (lehenengoa EAEkoa eta hurrengo urtean estataltaren barruan)
Zer eta noiz dira izaera bereziko Lekualdatze-lehiaketak?	Izaera bereziko lekualdatze-lehiaketetan, ezaugarri espezifikoak dituzten plazak esleitzen dira: espetxeetakoak, ikus-entzumen arazoak dituzten ikasleekin egotekoak... Horietan parte hartzeko ezaugarri bereziko tituluak edo ikastaroak direla ziurtatu behar da. Batzuetan lekualdatze-lehiaketa arruntak baino beranduago izaten dira. Karrerako funtzionarioek aukera daukate lekualdatze-lehiaketa arruntetan parte hartzeko, bai eta izaera berezikoetan ere. Bi esleipen ezberdin izanez gero, bietatik bat hautatzeko aukera izango dute.
Ofiziozko esleipena nork?	Ofizioz esleituko zaie praktikaldian dauden funtzionarioei edo behin-behineko destinoan daudenei.
Lurralde historikoa?	Nahi diren lurralde historikoko ikastetxeak aukera daitezke. Ofizioz soilik aukeratu dugun lurralde historikoko ikastetxeak esleitzen dira. Ez badugu aukeraketa egin, behin-behinean/praktikaldian gauden lurraldeko plazak emango zaizkigu.
Ofizioz esleitzen ez diren plazak	CEPA ZIG gela Lanpostu ibiltariak DBH 1. zikloko lanpostuak maisu-maistretan Elebidunak Kurrikulum aniztasuneko plazak (Diber) ...
Zer gertatzen da plaza lortzen ez bada?	Ikasturte hasierako esleipenetan parte hartu behar da, hurrengo ikasturterako lanpostua lortzeko. Ordezkoen aurretik aukeratzen da postua.